



Birusaren eragina kultur industrian

Kultur sormenari lotutako ekimenek Gipuzkoako beste eskualdeetan baino pisu handiagoa dute Beterri-Buruntzako ekonomian / 4-7

22 kutsatu San Juan Bataiatzailean

Azaroaren 6tik hona 22 egoiliar eta langile kutsatu dira. Astelehenean jakin zen kutsatuen artean egoiliar bat hil zela. DYAk, bestalde, PCR proba egin die guztiei / 2



**Andoaingo
Txitibarreko Regino
Otegi zendu da. Zesta-
puntan ibilbide oparoa
egin zuen** / 11



**Euskaraldian parte
hartzeko deialdi
berezia egin diete
Belarriprest modura
arituko direnei** / 8-9



**Basteroren irekitze
berrian kontzertu
gogoangarria eskaini
zuten Okiñenak eta
Gourdjiak** / 16



EUSKARALDIA URNIETAN
Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarte
AURREZ AURREKO IZEN-EMATEA
ETA TXAPA BANAKETA (Lekaio kultur etxean)
Azaroak 9, 10, 11, 12 eta 13: 16:00-19:30
Azaroak 14: 11:00-13:30 / 17:00-19:30
Azaroak 16, 17, 18, 19: 16:00-19:30
Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan





San Juan bataiatzailea adinekoen egoitza, Ama Kandida etorbidean. AIURRI

22 kasu positibo San Juan bataiatzailea adinekoen egoitzan

Egoiliar baten heriotzaren berri eman zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, astelehenean.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Egoitza Andoaingo Ama Kandida etorbidean dago, eta bertan bizi direnak herrian erroldatuta daude. Duela urte batzuk hona kudeaketa Kabia probintzia mailako erakundeak darama, eta udalerrian bertan informazioz ez dute ematen. Aiurri astekaria saiatu da egun hauek informazioa egoitzatik bertatik zuzenean lortzen, baina saiakerak ez du fruiturik eman. Gipuzkoako Foru Aldundia ari da informazioa ematen, maiztasunez. Eta horri esker dakigu Andoaingo adinekoen egoitzan 22 kasu atzeman direla, egoiliarren eta langileen artean. Egoiliar baten heriotzaren berri eman zuen Aldundiak, astelehenean. Egun horretan bertan DYAK PCR probak egin zizkiela jakinarazi zuten. Udaberrian egoitza birusetik salbu egon bazen ere, udazkenean agerraldia eman da

eta ez dirudi azkar amaituko denik. Ohi bezala, Aiurrik albiste berriak izan bezain azkar Aiurri.esu gunean eta sare sozialetan zabalduko ditu.

Andoaingo egoera orokorra

Intzidentzia tasa metatuak 1.000ko langa gainditu du. Baina alarma ez da behar baino gehiago piztu behar. Eta arrazoia ID tasan aurki daiteke. ID tasari buruz zera dio Osakidetzak: "Inzidentzia tasen arrazoiak gaurko 14 eguneko inzidentzia metatuaren tasa duela astebeteko 14 eguneko inzidentzia metatuaren tasarekin konparatzen du". Datu hori apalagoa da Andoainen, ID astez aste begiratzen jarrita:

- Azaroak 4-10: 1,18.
- Urriak 28-Azaroak 3: 1,31.
- Urriak 21-27: 1,36.
- Urriak 14-20: 1,97.
- Urriak 7-13: 2,00.



NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA
AIURRI

Hedabide handien begiradapean

Erredakzio taldean Urnietako kasuari arreta berezia eskaini diogu. Aiurritik eta Andoni Urbistondoren twitter kontutik egoera onbideratzen ari zen datuak eskaintzen aritu gara, azaroaren 2tik. Hori egiten genuen bitartean, DVko eta ETBko programa ezberdinetako kazetariak Urnietarekin tematuta zeuden. Urnieta jomugan jartzearekin batera, beharrezkoa zena baina alarma handiagoa pizten ari ziren. Datuek hobekuntza islatzen zuten, eta hala ere masa hedabideetan beldurra eragiten duten informazioa zabaltzen jarraitzen zuten.

Azaroaren 2an Urnietan ID tasa beheruntz zihoala nabarmendu genuen, webgunean zabaltzen dugun eguneroko boletinean. Azaroaren 3ko albistean Urnietako jaitsiera lerrobura eraman genuen. Aiurri.eus gunean, azaroaren 4an, "Urnietan egoera hoberuntz doan seinaleak ikusten dira" irakur zitekeen. Eta azaroaren 6an, eguneroko boletinez gain, albiste berezia sortu genuen urnietarrei begira: "Urnietako egoera onbideratzen ari da" izenburupean.


Abiadura azkarrean bizi gara, eta nori axola dio orain aurreko astekoari buruz xestran ibiltzea...



IREKIA

ZIuko okupazioa jaistea helburu

Ignacio Garitano Osakidetzaren Zaintza eta Kontrolerako programaren koordinatzaileak astearen hasieran emandako datuen arabera, UCI-ZIUn dauden pertsonen kopurua ez da Osakidetzak eskaini dezakeen okupazioaren %50era iritsi. Euskadi duela hamar egunetako kutsatuen eragina pairatzen ari garela adierazi du: "Espero dugu gaixo gutxiago edukitzea, hemendik hamar egunera edo bi astera nabaritutako da UCI-ZIuko zenbakietan".



IREKIA, AZAROAK 11

Oinarritzko birsorkuntza tasa

Euskadin oinarritzko birsorkuntza tasa apalduz doa, pixkanaka bada ere. 1,05eko tasan dago Euskadi, eta Gipuzkoak 1,03koa du gaur. Joera hau, pixkanaka bada ere, jaisten ari da. Eta hori oso datu garrantzitsua da birusa kontrolatzeko garaian. Azaroaren 4an 1,09koa zen Euskadi osoari begirako tasa.

Ostalaritzari lagunduko diola iragarri du Eusko Jaurlaritzak

Merkataritza eta Kontsumo sailak 30 milioi euroko laguntza ziurtatu du, premiazko izaeraz bideratuko dena

Erredakzioa ANDOAIN

Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak 30 milioiko laguntza-programa berri bat aurkeztu berri du azken erabakien ondorioz euskal ostalaritzan sor dai-

tezkeen zeharkalateak arintzeko: "Ostalaritza bezalako oinarritzko zerbitzu bat eskaintzeko lan egiten duten pertsonen laguntzea da helburua. Askotan bereziki kaltetuak izan dira eta modurik eraginkor eta zuzenenean iritsi

nahi dugu beraiengana", adierazi du Hurtadok. Gainera, azpimarratu duenez, laguntza-programa hau premiazkoa denez, premiazko kudeaketa-talde bat sortuko da, gutxienez 20 teknikarirekin, laguntza-programa hori kudeatzen arituko dena eskusiboki. Euskadin, ostalaritzaren sektorearen % 99 baino gehiago enpresa txikiek osatzen dute. Guztira, 12.219 establezimendu dira, eta, haietatik, erdiak baino gehiago langile lekoak edo 2koak dira.



Javier Hurtado sailburua, astearteko agerraldian. AIURRI



Udaberriko egoeraren antza handia du oraingoak, ostalarientzat. AIURRI

'SOS ostalaritza' aldarrikapena bi herrietan

KORONABIRUSA ETA OSTALARITZA Urnietako tabernari batzuk ezustean hartu zuten azaroaren 5ean Eusko Jaurlaritzak agindu zuen itxiera. Laguntzarik gabe, euren etorkizuna jokoan jarri dutela salatu dute

Andoni Urbistondo URNIETA

Ez zen giro azaroaren 6an Guria, Goi Mendi eta Riojanos tabernetan. Han zeuden tabernako arduradunak, batzuk barra atzean lanean, besteak bestelako gestioak egiten datorkien egoera latzari aurre nola egin aztertzen. Kolpe ikaragarria hartu baitute azaro osoan tabernak ixteko agindua jakinda. Hori behin-behinean, erabaki horrek luzeago jotzea ez litzatekeelako arraroa izango. Guria jatetxeko Iker Karrazedo sutan zegoen, telefono deiak egin eta egin: "Desastre bat da. Errudun bakarrik garela dirudi. Kolpe ikaragarria da, eta ez dakit zer pasako den langileekin, jasoko

ditugun laguntzekin... Ez genuen erabateko itxierarik espero, akaso ordu murrizketa bat bai, baina erabateko itxiera ez". Urtea oso gogorra eta zaila doala dio, "udaberrian dagoeneko bi hilabete eta erdi egon ginen itxita. Orain beste hilabete bat, ez dakit zer pasako den, baina gauza onik ez, noski". Herriak basamortu bat ematen duela dio Guriako nagusiak, amorratuta.

"HORRELA KO ERABAKI POTOLOAK HARTZEA EZIN DIRA INOIZ ONAK IZAN"

JULEN GOIA, GOI MENDI

Antzeko sentimenduak plaza-ratu dizkigu Goi Mendi tabernako nagusiak, Julen Goiak: "Halako erabaki potoloak ezin dira inoiz onak izan... Baikor ginen, pentsatuz akaso ordu gutxiagotan lan egin ahal izango genuela, baina lana egin, azken finean. Azken orduan jakin genuen erabat itxita egon beharko garela, gutxienez hilabete bat. Beldurtuta gaude, ziur gabetasun latza baitauekagu".

Riojanos tabernako Iñaki Niebla, aldiz, bazuen susmo txarren bat: "Susmoa banuen. Ez nekien Eusko Jaurlaritza edo Espainiako Gobernua izango zen erabakia hartuko zuena, baina etorriko zela bai".

Guria tabernak genero, elikagai piloa erosi du azken egunean, eta orain horrekin zer egin ez dakitela daude: "Batere abisurik eman gabe etorri da ixte agindua, genero piloa erosi ondoren. Zer egin behar dugu guk elikagai piloa erosi ondoren?". Tabernak pandemiaren sortzailerakartzat jo nahi direla salatzen du Karrazedok: "Errudun bakarrik gu garela saldu nahi dute. Ostalaritzaren sektorea pikutara botako dute, tamainako erabakiekin. Kolpe honi buelta eman ezinik geratuko dira asko. Pentsa, gainera, zeinen publizitate txarra ikusten den Urnietari buruz. Jendeak beldurra dauka, ez da etxetik ateratzen, eta gastuak ordaintzeko ere ez dugu ateratzen".

Ixteko erabakia jaso dute, baina laguntzak jasoko dituzten edo ez, arrastorik ez. "Lotsagabe batzuek gobernatzeko gaituzte, ze espero behar dugu haiengandik? Aholkulariekin hitz egin behar dugu, eta zain gaude, ea zer nolako panorama daukagun". Gastuak ordaintzen segitu behar dutela gogoratzen du Karrazedok: langileen segurtasun sozialaren zerga, aseguruak, kredituak, argia... "Hemen inork ez du barkatzen, baina kontuak garbiak dira. Guk 25 langile baino gehiago ditugu, eta horien zergak ordaindu egin behar ditugu. Diru sarrerak 0 izango dira. Diru ordainketak zenbatekoak diren kalkula ditzatela tabernak ixtea erabaki dutenek. Nola demontre ordaindu behar ditugu?".

Goiak ere bankuei ordaintzen segitu behar zaiela dio: "Ez pentsa haiek gure egoera ikusi eta zorraz atzeratu edo beste moduan ordaintzeko prestutasun handia dutenik. Ordaintzen ez baduzu zordun bihurtzen zara, eta gutunak bidaltzen hasten zaizkizu".

Txukun aritu arren, zigor handia

Zigor gogorra jaso dute, arauak zorrotz betetzen ari badira ere. Iñaki Niebla, Riojanos taberna: "Segurtasun neurri guztiak zorrotz betetzen ari gara". Taberna tren geltokiaren ondoan dago, eta tren asko jendez lepo ikusten ditu Iñakik, "Hor ez al da neurririk hartu behar? Ezin al dute tren gehiago jarri? Tabernekin bakarrik ordaindu behar al dugu pandemiaren zabalkuntza? Ni arauak betetzen, eta betearazten ari naiz, baina hilabete itxita. Normala haserre egotea, ezta?".

Andoaingo ostalarien iritzia

Itxiera eta berehala jasotako iritzi-sorta irakurrita, argi dago Andoaingen ere ez dela giro.

Anaiak eta Lanbroa:

"Ez dugu uste ostalaritza denik guzti honen errudun, edo itxiazteak asko lortuko duenik. Bestalde, ziur gaude negozio, langile eta familia asko egoera larrian geratuko dela. Laguntzak behar dira ostalaritzan ari direnei larru gorritan edo langabezian ez uzteko. Sektore handia da, jende askoren eguneroko ogiarekin jokatzeko ari dira. Eusko Jaurlaritzak, udalek zein gobernu zentralak laguntzak eman beharko lituzkete, bestela negozio asko itxi egin beharko dira eta langile asko langabezian geratuko dira".

97 taberna:

"Lehen aldiz tabernak itxi zituztenean gogorra izan zen, baina taberna ireki, lanean hasi eta diru apur bat berreskuratzen hasi ginen. Egoera errepikatzen ari da, berriro ere pertsiana jaitsi behar duzula pentsatzean, eraitsi egiten zara, ez duzu indarrik. Guztion artean elkar babestu eta borrokatu egin beharko dugu, ez dago besterik. Hau ere igaroko da, eta, orduan, inoiz baino indartsuagoak bueltatuko gara".

Mizpiradi sagardotegia:

"Hartu diren neurriak oso gogorrak dira sektorearentzat. Gure kasuan, datorren urterako sagardoa egin dugu, eta egoera hobetuz tabernak eta jatetxeak irekitzen uzten dutenean, geuk ere ateak zabalduko ditugu. Hurrengo urtean sagardo denboraldia ahal bezain beste luzatzen saiatuko gara".

Kultur jarduerak sasoi ilun honetan

KORONABIRUSA ETA KULTURA Aurreko astean, orriotan, birusak ekonomian eta lan munduan izan duen eragina aztergai izan zen. Sektore ia gehienetan izaten ari da ahazteko moduko urtea, baina bereziki kultur sektorearentzat. Galera oso handia da

Erredakzioa ANDOAIN

Beterri-Buruntzan kultur eta sormen industriak badu beste eskualdeetan ez duen pisua. Martin Ugalde Kultur Parkearen inguruan bilduta daude enpresa eta ekimen asko. Gehienek jendaurreko ekitaldietara bideratutako zerbitzuak eskaintzen dituzte. Pandemia garaian ezinezkoa da ia jendaurreko jarduerak burutzea. Eta hori sektorearentzat oso txarra gertatzen ari da. Enpresa txikiak dira, eta sektore horrek nozitu du gehien 2020ko krisia. Batz bestea, sektorean %50 eta %75 artean jaitsi zaie fakturazioa. Hala ere, burubelarri aritu dira kultur eragileak, neurriek ezarritako joko-eremuan ahalik eta eskaintza zabalena emateko ahaleginetan.

Herrietako festetako ohiturarik zaharrenetarikoa izango da ziurrenik bertso-saioa, baina aurreko Bertsozale elkarteak hainbat emanaldi bertan behera utzi behar izan ditu, pandemia dela medio.

Alabaina, egoerara hobekien egokitzen den diziplinetako bat da bertsolaritza, eta plazak doinuez zein errimez betetzeko aukera izan du udan.

Ilustrazioek hitzekin egiten dute jolas Txakur Gorria sormen kolektiboaren lanetan, eta hasiera batean pandemia gainera etorri arren, Ane Labakaren eta bere lankideen sormenak ez du etenik izan. "Hizteria kolektiboa" erronka plazaratu zuten itxialdian, 70 bat pertsonen parte hartu duten hitz asmatuen bilduma. Egun, "Orainmenean" proiektua oholtzaratu berri dute, bertsolaritzaren genealogia feminista. Martin Ugalde Kultur Parkean dute egoitza,

Proiektu baten sorreratik hasi eta horren aurre estreinaldira bitartean obra bat ekoizteko baliabide guztiak bermatzen dituen azpiegitura da Sarobe Arte Eszenikoen Gunea. Baina beste hainbat antzokitan legez, hemen ere bertan behera gelditu dira

hainbat ekitaldi, tartean, Puro Relajo mariachi taldearen emanaldia eta bertsoa zein antzerkia uztartzen dituen "Erradikalak ginen" ikuskizuna, baita "Sisiforen paperak" obra ere. Egunkaria hedabidearen auzian oinarritutako antzezlanak da azken hori, eta Kepa Errasti aktoreak gorpuztu du obrako pertsonailetako bat. Hilabete baino gehiago eman dute obra prestatzen, baina aurre estreinaldiaren atarian, bertan behera gelditu behar izan da Sarobeko emanaldia, osasun larrialdi egoera dela-eta. Hala ere, azaroaren 19an estreinaldia egiteko aukera izango dute Gas-teizko Principal antzokian.

Irririk gabeko bakarriketak, haurrik gabeko ipuin kontalariak, erakusmahairik gabeko Durangoko Azoka, lekukorik gabeko magia trikimailuak eta errimen maitalerik gabeko bertso-saioak. Herriak kultura behar duen bezainbeste behar du kulturak herria.



"Bi izarren kalenturak" antzezlanaren aurre estreinaldia Saroben egin zen. TXALO

Bertso saioak, erreferentzia gisa

		2019	2020		
Gipuzkoa	Plaza	568	167	(200)	%65
	Beste	828	312	(374)	%55
Tolosaldea	Plaza	73	27	(31)	%58
	Beste	118	57	(66)	%65

Bertsozale elkartetik eskaintako datuak argigarriak dira, kultur jardueren jaitsiera zeinen nabarmena izan den ikusteko. 'Plaza' atalean sartzen dira bertso saioak, bertso bazkariak eta afariak eta abar. Parentesi artean doa urtearen amaierako datu posiblea, aurtengo joerarekin jarraituz gero. 'Beste' atalean bertsoa ardatz duten ikuskizunak sartzen dira, hala nola, musika eta bertsoa uztartzen dituztenak. Kasu guztietan jaitsiera oso handia da.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: **BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



andoaINDARRA
euskaraz



Oier Iurramendi Etxeberria. XENPELAR

“Kultura gauzatzeko zirrikituak uztea eskatzen dugu”

OIER IURRAMENDI ETXEBERRIA BERTSOZALE ELKARTEKO SUSTAPEN ERAGILEA
Koronabirusak mugatu egin du bertsolaritzaren jarduna. Hala ere, Bertsozale elkarteak lanean dihardu Euskal Herriko plazak doinuez eta errimez betetzeko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Nola jaso zenuten martxoan etxeratze aginduren albisteak?

Bilera baten erdian geunden itxialdiaren berri izan genuen. Ez zen ustekabea izan, baina egun gutxiren buruan normaltasun batetik etxean sartuta egotera igaro ginen. Konfinamendua azkar iritsi zen, ia erreazio bat izateko denborarik eman gabe; hori izan zen kolpe handiena, ez genuelako denbora izan etorri zitekeena aurreikusi eta aurrea hartzeko. Astebete

baino gutxiagoan kultur jarduerak bertan behera gelditu ziren, eta Bertsozale elkartetik ikusi genuen garrantzia eman behar zitzaioela plazak berraktibatzeke ahaleginari. Oso denbora gutxian aldatu ziren gure lehentasunak, eta bizpahiru astean eginda genuen jada gure jardunaren birmoldaketa, etxetik lana egin, baina kanpora begirako eskaintza emateko.

Zein baliabide erabili zenituzten plaza berraktibatzeke ahalegin horretan?

Nahiko joko-arau murrizak genituen. Hasiera batean, ez genuen ezer antolatu, baina argi genuen egoerak utzi orduko elkarte martxan jarriko zela. Ordura arte elkartearen jarduna horretan enfokatu ez arren, berebiziko garrantzia eman genion plazari, baita bertsolariei ere. Hala, diru poltsa bat sortu zen: batetik, langabezian zeuden bertsolariei babes ekonomikoa emateko; bestetik, “Plaza bizi-berritzen” ekimenerako. Azken horren helburua plaza berrak-

tibatzea zen, eta bi atal zituen. Lehenik, antolatzaileei gure baliabideak eskaintzea zen asmoa, bertso-saioak gauzatu ahal izateko, hala nola, Subijana etxea eskuragarri zuten beren herrietan egin ezin ziren ekimenak antolatzeke. Bigarrenik, plazako saioak antolatzen hasi ginen, eta horren adibide da “Bidaia” ekimena. Hiru hilabeteetan (maiatza, ekaina eta uztaila) 23 saio antolatu genituen, zuzenean zein diferituan. Horietatik zortzi Bertsozale elkarteak hutsetik antolatuak izan ziren, eta gaitzazkoak herrietako antolatzaileekin egin ziren elkarlanean. **Zein nolako uda izan da bertsolaritzarentzat?**

Inork ez zekien nola izango zen uda, zein eragin izango zuen kulturari dagokionez. Egia da egoerara nahiko ondo egokitzen den kultur diziplina dela bertsolaritza. Izan ere, publikoa eserita dago eta bertsolaria oholtza gainean ez dira mugitzen. Beraz, beste diziplinekin alderatuta, neurriak betetzea erraza izan da bertsolaritzaren kasuan. Udan antolatu ohi diren saio gehienak herriko zein auzoko festei lotuta dira, eta, beraz, jaiak bertan behera uztearekin batera emanaldi asko eten dira. Batez ere, jaialdi formatuko saioa mantendu da, baina askotariko saioak galdu dira, tartean, otorduen bueltan egoten direnak, bertso-poteoak eta libreko saioak. Orduan, egun batetik bestera nahiko eszenatoki bereziarekin egin genuen topo: datuei erreparatuta, izugarria da zenbateko alde dagoen pasa den urteko udaren eta aurtengoaren artean.

Emanaldiak antolatu ez ezik, bertsolaritza klaseak ere antolatzen dituzue hezkuntza arautuan.

Ikasturte amaieran etorri zen lehen konfinamendua, eta hezkuntzan egin zen legez, bertsolaritza klaseak ere telematikoki eman ziren. Hala ere, beldurra bazegoen, ikasturte berriari zegokionean. Zorionez, iraila has-tearekin batera ekin diote bertso eskolak emateari hezkuntza arautuko eskoletan. Oraingoz,

"EGIA DA EGOERARA NAHIKO ONDO EGOKITZEN DEN KULTUR DIZIPLINA DELA BERTSOLARITZA"

bertan behera dauden bertsolaritza klaseak konfinatu egin behar izan diren eskolenak dira soilik. Bertso-eskolei dagokionean, bakoitzak ahal duena egin du. Aurtun antolatu gabe gelditu behar izan direnak bertso udalekuak izan dira, urtero udan egiten diren udalekuak, hain zuzen.

Kultura babesteko nahia dagoela sentitzen duzue emanaldiak antolatzen dituzten eragileen partetik?

Eragile txikiek (bertso-eskolak, herri mugimenduak...) oztopo gehiago izan dituzte emanaldiak antolatzeke, baliabide falta dela medio. Horretan lan egingo dugu datozen hilabeteetan, Bertsozale elkartetik herriko eragile txikiei baliabideak nola eskaini pentsatzen, alegia. Udalei dagokionez, nork bere neurriak hartu ditu, eta gure lana izan da, ahal izan den heinean, ikustaraztea emanaldiak egin daitezkeela, kultura segurua dela.

Pandemiak eragindako egoera ekonomiko larriari aurre egiteko hartu diren neurriak dagokionean, zein leku du kulturak?

Pasa den astelehenean egin genuen azken neurriak baloratzeke bilera, baina kultura gauzatu ahal izateko zirrikituak uztea eskatzen dugu. Izan ere, ikusten dugu oso kontrolatuta dagoen ingurua dela, jendea pilatu arren, oso era neurtuan ematen dela, segurua dela. Neurriek uzten dizkiguten aukerak baliatuko ditugu plaza ahalik eta gehien sustatzeko eta baliabideak eskaintzeko.

Zer erakutsi dizue pandemiak, kultur jardueren kudeaketari dagokionean?

Zaildu egin du kudeaketa. Orain saio bat antolatzeak lehengo lau saio antolatzeak bezainbeste kostatzen duela esango nuke. Emanaldiak adosterako orduan, ez dakizu hemendik bi hilabetera zein neurri egongo diren indarrean, ez eta bertsolariek zein osasun egoera izango duten. Hori dela eta, saio asko bertan behera gelditu dira, baita atzeratu ere, eta horrek lana dakar, ezintasun handia; antolatzaile askok atzera egitea ekarri du horrek. Lehen saio bat antolatzeak lana eskatzen bazuen, orain are nekezagoa da. Hala ere, gu egoskorrak gara zorionez, eta gure esku dagoen guztia egingo dugu ahalik eta saio gehien antolatzeke. Pazientzia edukitzen eta egoskorrak izaten ikasi dugu.



Kepa Errasti Sarobe arte eszenikoen gunean. AIURRI

“Hazia jartzea da sortzea, dirurik ematen ez duena ereitea”

KEPA ERRASTI GORROÑO AKTOREA ETA GIDOILARIA

Pandemia egonda ere, buru-belarri aritu da lanean: gidoilari, zuzendari laguntzaile gisa zein aktore lanetan. “Fadoak entzuten zituen gizona” obra estreinatu du berriki

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Zein proiektutan lanean harrapatu zintuen martxoko konfinamenduak?

“Ama Kuraia” obran nengoen lanean, berriki Bilbon estreinatu den antzezlanarekin. Lanaren euskarazko itzulpena egin nuen nik, eta zuzendari laguntzaile lanetan zein aktore gisa nengoen, kide bat ordezkatzan. Obra estreinatu baino bost egun lehenago iritsi zen konfinamendua. Harridurarekin hartu nuen, zer gertatuko zen oso ondo jakin gabe. Ez genekien zenbat iraun-

go zuen, ez eta zer gertatuko zen ere, baina kolpe handia izan zen, ilusioa handiarekin geundelako. Hiru hilabete eman genituen lanean eta oso prozesu gogorra izan zen; jende asko ginen obran, muntaketa handi

"IRRIBARRE EGIN BAINO, JENDEAK ALGARAK EGITEN DITU, ETA ENTZUN EGITEN DIRA"

batean. Esan ziguten, epe laburrean behintzat, ez zela berrartuko. Ondoren, urrian egingo genuela jakinarazi ziguten, baina nik ezin izan nuen lantaldean jarraitu, hainbat proiektu lotuta bainituen.

Kultur eragile gisa, nola egin zenion aurre martxoan hasi zen konfinamenduari?

Zorte handia izan nuela iruditzen zait. Izan ere, konfinamendua hasi eta bi asteira “Etxekoak” telesailetik deitu zidaten gidolari lanetan aritzeko etxetik.

Gainera, lauzpabost astetara “Barre Librea” iritsi zen. Beraz, konfinamendua lanean igaro dut: lehenik eta behin, etxetik eta ondoren, lantokian. Izan ere, “Barre Librea”-ri ekin genionerako neurriak lausotu ziren. Gainera, etxetik lana egitea ez zen arraroa izan, izan ere, Goenkalen lanean egon nintzenean gidoigintza etxetik egiten nuen. **Zaila al da “Barre Librean” baka-**

rrizketak egitea aurrez aurreko publikorik gabe?
Bai. Gainera, ez ditut inoiz baka-rrizketak egin, ez dakit zer den jendaurrean baka-rrizketa bat egitea. Hasieran, sekulako beldurra genuen, gu geu maki-llatzen ginen. Baina egia esan, berehala konektatu genuen lantaldeko kideek eta oso erraza izan zen; askatasuna sentitzen dugu formatu horren barruan nahi duguna egiteko, alegia, nork bere gaiak aukeratu eta lantzeko. Hasieratik planteatu zen sei kide egongo zirela baka-rrizketak egiten: batek egin bitartean gainontzekoak inguruan egongo ginen eserita babesa emateko.

Zein rol jokatzan du kulturak osasun larrialdi egoeran?

Informazioaren bonbardaketa izan dugu, eta ezinegon handia sortu da, hein batean, beharrezkoa izan dena kontzientzia sortzeko. Hala, garrantzitsua izan da jendeak beste gauza batzuetan pentsa dezan, antsietate horretatik aldentzeko. Era berean, baliagarria izan da euskal sortzaileon ahotsa entzuteko.

Uda oparoa izan duzu?

Izugarrizko zortea izan dut. Ekainaren erdialdean, itxialdia arintzen hastean, “Fadoak entzuten zituen gizona” obraren entseguekin hasi ginen, eta uztailean, obra berarekin, beste bi aste eman genituen lanean. Abuztuan “Erlauntza” pelikulan parte hartu nuen gidoia idazten. Ondoren, irailean “Sisiforen paperak” obrari ekin genion. Ez dut trabarik izan nik neukan lan hori egin ahal izateko.

“Fadoak entzuten zituen gizona” obra estreinatu zenuten Tolosan irailaren 18an.

Oso pozik gaude izan duen harre-
rarekin. Xabier Ormazabal-ekin batera sortutako Xake produkzioak konpainiaren hirugarren obra da. Zorte handia izan genuen, izan ere, aurrez hitzartuta genituen, diru-laguntza baten bitartez, hogeitik gora

emanaldi, eta momentuz, denak egiteko aukera izan dugu.

Arrotza da musukoa jantzita duen publiko baten aurrean aritzea?

Bai. Batez ere, “Fadoak entzuten zituen gizona” obrarekin nabil jendaurrean lanean, eta barre asko egiteko obra da. Irribarre egin baino, jendeak algarak egiten ditu, eta entzun egiten dira. Baina arrotza da jendearen aurre-
pegia ez ikustea.

Herritarren partetik kultur eragileak babesteko nahia sentitzen duzu?

Zaila da hori baloratzea, izan ere, edukiera murriztuta dago aretoetan eta ez dakizu zenbat jende etorriko litzatekeen berez. Baina nik ikusten dut kultura babesteko borondatea herritarren partetik, egin ditugun emanaldi guztietan sarrerak agortu baitira. Zirrargarria da ikustea antzokiak bete egiten direla.

Eta instituzioen partetik?

Gauza askotan inprobisatzen ari direla uste dut, ez dakitela oso ziur nola egin aurre egoerari. Konfinamenduaren hasieran neurri oso polemikoak hartu ziren artistei bideratutako diru-laguntzetan. Hala ere, sortu dira espazioak gaiaz eztabai-datzeko eta egoerari irtenbidea emateko. Esaterako, Reset ize-neko plataforma arte biziek lehen eta orain zuten egoeraz mintzo da, baita egoerari aurre egiteko moduez ere.

Nolakoa da sortzaile baten egunerokotasuna larrialdi egoeran?

Ez da ona beldurrez bizitzea. Konfinamendua hasi zenean erabaki nuen telebista ez ikustea, ez zidan bizitzen laguntzen, antsietatea sortzen zidan. Berritro ere konfinatzen bagaituzte gauza berriak sortzen, pentsatzen hasi beharko dut, baina okerrean da horrek ez duela jatekoa ematen. Hazia jartzea da sortzea, diru sarrerarik ematen ez duen hazia ereitea, eta horrela zenbat irauten da?

Zer erakutsi dizu osasun larrialdi egoerak?

Zeinen txarra den beldurrarekin bizitzea. Osasuna tartean dagoenean, ez gara ausartzen ezjakintasunetik egoerari aurre egiten, eta ez dauzkagu horrenbeste erreminta gure kabuz jakiteko agintzen digutena nahikoa den ala ez. Garbi daukat ez dudala nahi beldurrez bizi, eta luzerako joko badu honek, bilatu beharko dira baliabideak egoera honetan bizi ahal izateko, eguneroko bizimodua oztopatu gabe.



Mariñe Arboe, Nerea Ibarzabal, Ane Labaka eta Malen Amenabar. TXAKURGORRIA

“Kulturan azken emaitzak balio du, hori da ordaintzen dena”

ANE LABAKA MAYOZ TXAKUR GORRIA KOLEKTIBOKO KIDEA

Itxialdiak ezustean harrapatu zituen euskal sortzaileak, baita Txakur Gorriako kideak ere. Hala ere, pandemia ez da traba izan buruari eragin eta proiektu berriei ekiteko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Sorkuntzan eragina izan du etxetik atera ezin ahal izateak?

Oso arraroa izan zen dena. Izan ere, konfinamenduan kultur eragileoi eskatzen zitzaigun oso sortzaileak izateko, eta hasieran nik ere horretan sinistu arren, beranduago konturatu nintzen ezetz. Alegia, nire ustez, sortzaile izateko estimuluak behar ditugu: kalera irten beharra dago, jendearekin egon, hitz egin eta ikusi. Etxean sartuta zaude-nean, eta zure egunerokotasuna

betiko lau paretak direnean, ez dago zer sortu handirik. Leku askotatik iritsi zitzaigun sortzaileoi mezu bera: zuen momentua da, sortu proiektuak, gizarteak behar ditu-eta. Baina horrek kontraesanak zituen be-

"JENDEAK BEHAR DU JENDEAREKIN ELKARTZEA, BIZI DUGUNARI HITZAK EDO IRUDIAK JARTZEA"

rekin, izan ere, sortzaileoi asko eskatu zitzaigula iruditzen zait, baina gero trukean ez zaigu hainbeste itzuli.

Hitz berriak sortzeko erronka plazaratu zenuten itxialdiaren hasieran, eta "Hizteria Kolektiboa" liburuxkan jaso zenituzten denak.

Tailer bat egiteko proposatu zigun BERRIA Aretoak, eta aurretik egindako proiektu bati eutsi genion, "Hizteria". Jolas gisa proposatu genuen: parte-hartzaileek hitz bat asmatu behar zuten, eta beste kide batena

definitu, hirugarren batek hitza zein definizioa hartu eta horren gaineko marrazkia egiteko. Oso harrera ona izan zuen, jende askok hartu zuen parte. Oiar-tzunen, esaterako, "Hitzen lihoa" ekimenean herri mailako "Hizteria" propioa sortu nahi dute, eta proiektua dinamizatzen lagundu diegu.

Apirilaren 21ean eta 22an greba digitala izan zen Euskal Herrian. Bat egin zenuten? Zergatik?

Bat egin genuen grebaren hari-ra sortutako irakurketarekin. Nabarmendu nahi genuen ez dela euskal sortzaileak egoera ideal batean geundela eta mundu mailako izurria etorri eta dena hankaz gora jarri duela, baizik eta pandemia aurretik gaizki zegoen egoeraren azken tanta izan dela. Gainera, kulturaz azken emaitzak balio du, hori da ordaintzen dena. Beraz, bertan behera gelditu diren emaldien kasuan, azken emaitza oholtzara eramaten ez bada, ez dio inork balioa ematen aurretik egin den lanari.

Neurriak arintzen hasi zirenetik sormen tailerrak antolatu dituzue. Zein nolako harrera dute halako proiektuek garaioan?

Deba, Barañain zein Hernaniko plaza feministan izan gara idazketa eta marrazkigintza ikastaroak ematen, eta oso harrera ona izan dute. Jendeak behar du jendearekin elkartzea, bizitzen ari garenari hitzak edo irudiak jartzea; sartu nahi diguten eguneroko horretatik atera nahi du jendeak, eta hori kulturak bermatzen du.

"Orainmenean" proiektua estreinatu zenuten Bilbon urriaren 8an.

Duela urte batzuk garai bateko emakume bertsolarien inguruko lan bat egin genuen, eta 40 bat pasartetan kontatu genuen emakume ikusezin horien istorioa. Orduko hortan, Mariñe Arboe eta Malen Amenabar ilustratzaileek 20 kontaketa ilustratu zituzten. Gauzak horrela, Lanku sormen beka eskatu genuen gainontzeko 20 kontaketei irudia jartzeko. Hala, liburuxka bat argitaratu dugu kontaketeekin zein irudiekin. Horrez gain, soilik emakumez osatutako bertso-saioak antolatzean datza proiektua, liburuxkako irudiak atrez-zo gisa daude emanaldian, eta gaiak kontaketeetan oinarrituak dira. Helburua emakume bertsolariei espazio bat ematea da, elkarrekin kantatzeko zein es-

perimentatzeko. Gauzak horrela, zerrenda luze bat osatu dugu parte hartu nahi zuten kideekin. Hiru bertsolarik abestuko dute aldiro, horietako bi antolatzaileek aukeratuko dituzte, baina hirugarrenak beti izan beharko du ordura arte parte hartu ez duen bertsolari bat.

Babesa sentitu duzue herritarren partetik? Eta instituzioetatik?

Herrigintzatik eta kulturagintzatik bai ikusten dut; aldiz, instituzioen partetik bestelakoa da jarrera. Emanaldi bat antolatu nahi duenak neurrien arteko zirrikitueta ibili behar du, ez dago erraztasunik. Baina datuei erreparatuz gero, agerikoa da ez dela egon kutsatzerik kultur ekitaldietan. Nekatu egiten du egoerak. Gainera, konfinamenduan jende askok zioen kultura beharrezkoa dela, baina, egun, askok interes pertsonalei erreparatzen diete, kolektiboetan pentsatu beharrean.

Pandemiak eragindako egoerari aurre egiteko hartu diren neurriei dagokionean, zein leku du kulturak?

Orain arte ez dira ausartu esaten kultur ekitaldiak debekatuta daudela. Baina herri mailako konfinamendua ezarri gero, hainbat lekutan antolatutako emanaldiak bertan behera gelditu dira. Iruditzen zait ez dutela zuzenki kulturaren aurka egiten, baina hartutako neurriek kultur ekitaldietan eragina izango dutenaren jakitun dira: "Guk ez dugu zuzenean kultura hilko, baina utziko diogu bere horretan hiltzen".

Osasun larrialdiak eragina du zuen jardunean?

Zortea izan dugu, martxotik eutsi diogulako jardunari. Hala ere, pandemiak psikologikoki eragiten du, izan ere, martxoan ekitaldi bat erortzen zen bakoitzeko larritu egiten nintzen, antsietatea sortzen zidan egoerak. Baina orain normala iruditzen zait asteazken batean jakitea ea as-teburuko ekitaldiak egingo diren edo ez. Gainera, taldean lan egiteak asko laguntzen du, proiektu batek kale egiten badigu, batera egiten diogulako aurre egoerari. Barrura begira jarri gaitu pandemiak eta lana nola egin nahi dugun eta zein balore nahi ditugun zaindu erabakitze-ko baliagarria izan da. Beraz, hein batean, parentesia ondo etorri zaigu guretzat tarte bat hartzeko. Pasa dena pasa dela ere, indartuta atera gara.

Belarriprest modura parte hartzeko deialdia

Euskaraldiak *belarriprest* izan ala ez zalantzan dauden herritarrei luzatu die izena emateko proposamena. Izan ere, momentuz aktibatu diren herritarren gehiengoak *ahobizi* izatea erabaki du



Aurreko edizioako Euskaraldiko ekitaldia Urnietan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Herritarren eguneroko harremanetan hizkuntza inertiak astindu eta euskararen erabilera areagotzea da Euskaraldiaren helburu nagusia.

Harreman horiek, Covid19aren eraginez mugatuta eta baldintzatuta egon arren, egunerokoak izaten jarraitzen dute. Ondorioz, “kalean presentzia gutxiago izango dugun arren, hurbileko

harreman sareetan hizkuntza-ohiturak aldatzea posible dela” azpimarratu du Arrate Illaro Euskaraldiaren koordinatzaileak. Era berean, pandemiak eragindako egoeran arlo digitalak he-

rritarren arteko harremanetan hartu duen garrantzia handitu egin dela aintzat hartuta, hurrengo asteotan sarean eta gailuen arteko komunikazioan *ahobizi* edo *belarriprest* aritzeko gomendio eta jarraibideak zabalduko dituztela iragarri dute ekimenaren sustatzaileek.

Izena emateko epea zabalik dago

Euskaraldian izena emateko epea oraindik ere zabalik dagoela ohartarazi dute antolatzaileek, eta, bereziki, *belarriprest* izan ala ez zalantzan dauden herritarrei luzatu diete izena emateko proposamena. Izan ere, momentuz aktibatu diren herritarren gehiengoak *ahobizi* izatea erabaki du. Ariketa egiteko modua adierazten duten bi rol horiek dira beharrezkoak, antolatzaileen esanetan, taldean euskara gehiago erabiltzeko. Ariketa izango den 15 egunetan, etxean, lanean, merkataritzan zein eremu digitalean ditugun harremanetan aldatetarako egiteko, Euskaraldia baliagarria izango dela nabarmendu dute.

Lehen edizioako emaitzek azalerratu zutenek, *belarriprest* gisa parte hartu zutenek ariketa egin aurretik baino jokaera aktiboagoa izan zuten, gerora, hizkuntzarekiko. Beraz, *belarriprest* rolak norberaren zein inguruko hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzen duela azpimarratu dute, euskaraz gehiagotan egiteaz

gain, ingurukoei hala aritzeko gonbidapena egiten baitiete *belarriprest* direnek.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburuak oraingo edizioan ere *belarriprest* rola aukeratu duela adierazi du. “Nirekin euskaraz egin nahi duenari euskaraz egin iezadala nahi dut, horretarako gonbidapen bat luzatu nahi diet. *Belarriprest* izanda euskara ulertzen dudala, euskara gehiagotan entzun nahi dudala eta ahal den guztietan erabiliko dudala adierazi nahi dut”.

Euskara hirigunean

Bestalde, agerraldian gogora ekarri dutenez, hiriguneetakoak izan ziren lehen edizioan parte hartu zuten *ahobizi* eta *belarriprest* gehienak. Hizkuntzaren erabileran garrantzia handia dute eremu hauek, herritar asko bizitzeaz gain, inguruko herrietatik lanera, ikastera edo merkataritzara gerturatzen baitira egunero milaka pertsona. Horregatik, euskara kalean ikusgarri egin, hizkuntza-ohiturak aldatu eta ariketan parte hartzea deitu dituzte hiriguneetako biztanleak.

BELARRIPREST GISA PARTE HARTU ZUTENEK GERORA JOKABIDE AKTIBOAGOA IZAN DUTE

Eman izena Euskaraldian!

izenematea.euskaraldia.eus



**EUSKARALDIA****GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AHOBIZI edo
BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Euskaraldiak irauten duen 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al nago?

**BAI,
BETI**

- Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- Elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

NI**BAI,
NAHI ETA AHAL
DUDANETAN**

- Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

NIwww.euskaraldia.eus

Memoriaren eguneko adierazpena

Azaroaren 10ean, Memoriaren Egunarekin bat eginez, Andoaingo Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek agerraldia egin zuten. Adierazpen bateratua aurkeztu zuten, memoria inklusiboan sakontzeko mezua zabaltzeko

Erredakzioa ANDOAIN

Udal ordezkariak "ideien aniztasunean, printzipio demokratikoetan eta giza eskubideen defentsan oinarritutako memoria inklusibo batekiko konpromisoa" berretsi zuten. "Horregatik, ondorengo adierazi nahi dugu: Indarkeria eta giza eskubideen urraketa mota guztien gaitzespenetik abiatuta, memoriak, biktima guztien errekonozimendua, erreparazioa eta ez errepikatzearen bermea sustatu behar dituela".

Azkenik, Andoaingen memoria politiketan lan egiten eta sakontzen jarraitzeko gure borondatea eta konpromisoa berretsi zuten.



Agerraldia egin zuten astearte eguerdian. UDALA

"Guztiok dugu gazteei iraganari begiratzeko laguntzeko ardura"

Jose Antonio Rodriguez Ranz Eusko Jaurilaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiak kanpainaren ardatza zein den azaldu zuen: "Guztiok dugu gazteei iraganari begiratzeko laguntzeko ardura".

"Atzera begiratu aurrera jarraitzeko" da edizio honen lema nagusia. Helburu pedagogikoa du, bizikidetzeta indartu nahian.



Beatriz Artolazabal sailburua eta Jose Antonio Rodriguez Ranz idazkari nagusia. IREKIA

Urgentziazko neurriak hartzea eskatu du EH Bilduk

Aurreko asteburuan neurri-sorta erregistratu zuen Andoaingo Udaletxean

Erredakzioa ANDOAIN

"Hainbatetan eskatu dugun diagnostiko orokorra" martxan jartzeko eskatu du Andoaingo EH Bilduk. Pandemiak eragin duen kalte kuantitatiboa eta kualitatiboa neurtzea beharrezkotzat

jo dute. Eta bitartean, urgentziazko prozeduraz, ostalariei, kultur sektoreari eta turismoari bideratutako laguntzak bideratzea eskatu dute. Sektore horiei begira tasak eta zergak berrikustea eskatu dute, besteak

beste, "azaroa eta abendurako eskatuta dauden terrazen, uraren eta zaborraren tasa barkatzea". 2021. urteko tasak eta zergak berrikusi beharko direlakoan daude.

Janaria etxera eramateko aukerari heltzen dioten Andoaingo taberna eta jatetxeen gida bat egitea eskatu dute, eta Udalak gida hori etxe guztietara buzoneatzeko ardura har dezala. Elkarrekin gastronomikoei hoberi berberak aplikatzea eskatu dute.

Ostalaritza mahaia martxan jartzeko eskaera

Martxan jartzeko eskatzen dute, ostalariei, Udalean ordezkariak duten alderdi guztien eta Udal teknikarien parte hartzearekin. Bide beretik, Eusko Jaurilaritzari ostalaritzara zuzendutako erreskate plana onartu dezan eskatu nahi diote. Horretarako beharrezkotzat ikusten dute Udal ordezkariak duten alderdi politiko guztien babesarekin erreskate plan hori egitea eskatzea.

Kultura

"Egiten diren kultur jarduerak guztietan azpiegituraren kontratazioa Andoaingo enprekin, autonomoekin egitea. Hauen zentso bat egin eta kontratazio orekatua bermatzea". Era berean, Andoaingo kultur sortzaileekin kultur zikloa antolatzea eskatu dute. Eta horren iragarpena bideratzeko egiten diren diseinu, banaketa eta inprenta lanak Andoaingo edo eskualdeko bitartekoei egitea eskatu dute, azkenik.



2019ko sari banaketa ekitaldia. AIURRI

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien finalistak berri eman dute

Sari banaketa ekitaldia datorren azaroaren 26an izango da Bastero Kulturgunean, iluntzeko 19:00tan hasita

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskal Herrian banatzen den sari nagusia da, euskarazko kazetaritzarentzat ezinbesteko hitzordu bakan horietakoa. Iaz, sariaketa-sisteman aldaketak egin zituzten. Nabarmenena finalistaren figura da. Aurretik iragartzen dituzte, eta sariak bertan irabazleak jakinarazi. Finalisten artean bi saridunak nortzuk diren sari banaketa ekitaldian jakingo da. Azaroaren 26an izango da, 19:00tan hasita Bastero Kulturgunean. Ekitaldian Xabier Lete gogoan hartuko dute, haren heriotzaren hamargarren urtean.

Bi sari nagusi emango dira, biak maila berekoak: "Kazetaritza saria" bata, eta "Komunikazio saria" bestea. Zortzi finalistak horien arteko bi izango dira, beraz, aurtengo Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan irabazleak. Hona finalistak:

Aurtengo finalistak

Bi sari nagusi dira, eta zortzi finalista denera.

Kazetaritza saria

- Arantxa Arza eta Felix Zubia, "Osasun Etxea" (Euskadi Irratia).
- Miel Anjel Elustondo, "Tonban ehortzirik" testu sorta (Berria).
- Albiste Faktoriako lantaldea, 2019ko irailetik 2020ko iraila bitartean egindako saioak (Euskadi Irratia).
- "Koronabirusaren azken datuak" atala egin duen lantaldea (Berria).

Komunikazio saria

- "Egunean behin" jokoa, CodeSyntaxen eskutik.
- "Ene kantak!" proiektu komunikatiboa.
- Arteman, "Lur eta Amets" filmaren komunikazio prozesua.
- Mendiak eta Herriak elkarte eta Et Incarnatus Orkestra, Urmuga proiektuaren spotak.



Aurtengo sarituak Bastero Kulturgunean, astearte arratsaldean egin zen ekitaldian. AIURRI

Parte hartze handia aurtengo sariketan

Pandemiak ez zuen sari banaketa ekitaldia galeraztea lortu. Bastero Kulturgunera deitu zituzten irabazleak, eta prebentzio neurriak zorrotz beteta 24. edizioa burutu ahal izan zen. Ainara Ugalde bertaratu zen, Martin Ugalderen familiaren izenean

Erredakzioa ANDOAIN

Guztira 126 lan aurkeztu dira aurtengo Martin Ugalde ipuin lehiaketara. Garazi Kamio aurkezteak adierazi duenez, aurtur

ere aurreikuspen guztiak gainditu dira; ikasleek maila ezin hobia erakutsi dute gainera. Traba bat izan beharrean, idazten jarraitzeko lagungarria den

egoeratzat jo zuen bizi dugun garaia, epe ertain eta luzeko etorkizunean pandemiari buruzko idazlanak, liburua eta pasarteak idatziko baitira.

Baikortasunaren aldeko giroa nabari zen Basteron, astearte arratsaldean egin zuten ekitaldian.

Sarrituen artean bada nagusitzen ari den joera bat: Emakumezkoak gehiago direla.

Saridunak mailaz maila

10-11 urte:

- Lehen saria: "Lurralde magikoan", Aiora Otamendi.
- Bigarren saria: "Nire burua-ren bila", Maren Aranburu.

12-13 urte:

- Lehen saria: "12 ordu hozkailuan sartuta", Unax Bergara.
- Bigarren saria: "Itsasargiko ipuinak", Naroa Asensio.

14-15 urte:

- Lehen saria: "Hasierako Hunkipena", Naroa Zozaya.
- Bigarren saria: "Indar", Libe Irulegi.

16-17 urte:

- Lehen saria: "Arnasketa", Ekhi Azurmendi.
- Bigarren saria: "Joaneko bi-daia", Jone Otxandorena.

126 LAN AURKEZTU DIRA AURTENGO IPUIN LEHIAKETARA. BIZI DUGUN EGOERAN DATU ONA DA HORI



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema.
Andoain urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kioskot eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: JM Sagaseta (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Golea Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.





Regino Otegiaren irudi ikusgarria, profesional garaian ateratakoa. TXITIBAR

Regino Otegi oroimenean

ZESTA-PUNTA 77 urte zituela, igande honetan hil da Regino Otegi Iturralde. Txitibar tabernari oso lotuta dagoen familiako kidea, iraganean zesta-puntan nazioartean jokatzeko aritu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Zumea plazan dagoen Txitibar taberna iraganeke argazkiz beterik dago. Ia guztiak zestara lotuta daude. Izan ere, otegitarren belaunaldi ezberdinak kirol jarduera horretan trebatu ziren. Mundu zabalean ibili ziren, gainera.

Reginok aitonaren eta aitaren kirol jarduerari jarraipena eman zion. Eta joera hori familian dagoeneko tradizio modukoa bilakatu zen. Izan ere, Reginoren semea Ibon profesional modura aritu zen ere.

Regino Otegi Iturralde 1943ko urtarrilaren 22an jaio zen An-

doainen, aita Regino Otegi eta ama Joxepa Iturralde zituelarik. 14 urterekin eskola utzi eta obran lanean hasi zen. Zesta-puntak lanbide gogorra uzteko aukera eman zion, eta hainbat urte eman zituen nazioarteko frontoi ezberdinetan jokatzeko. 16 urterekin Bartzelonara joan zen, beste

hainbat pilotarirekin batera. Bertan, zestaz gain, palan ere jokatzeko aritu zen. Soldaduska amaituta, Filipinasen ibili zen hiru urtez, ondoren Zaragozan jarraitu zuen bere kirol ibilbidea eta handik AEBtako Floridara abiatu zen. 1967ko greba hasi zenean Andoainera itzuli eta Txitibar taberna ireki zuen.

2017an June Otegi eta Lili Zubeldia bilobek Otegitarren historia bildu zuten Erreportari Gaztea Saria kazetaritza lehia-ketarako, eta baita bigarren saria irabazi ere. Lan horretan, Regino Otegi bikain definitu zuen zesta-punta: "Kirol politenetakoa da. Oso liluragarria eta osatua da kirol bezala. Zesta jokatzeko modua dantza egitea da, konpas bat egitea bezala".

Otegitarren tradizioa zesta-puntan

XIX. mendera egin behar da jauzi, familiaren kirol ibilbideari erreparatzeko. 1893an Juan Bautista Otegi bere lehen kontratua sinatu zuen, Txinan jokatzeko. Juan Bautistak hiru seme izan zituen: Regino, Joxe Ramon eta Joxe. Hirurek Brasilen ibilbide oparoa egin zuten. Joxe Ramon han geratu zen, baina Joxe eta Regino hona etorri ziren. Reginok Brasilen, Txinan eta Florentzian jokatu zuen.

Reginok semeari izen berdina jarri zion. Txitibar tabernaren jabeak aspaldi utzi zituen garai haiek atzean, baina ez dezagun ahaztu kirolari lotutako iragan loriatsu hura.

Txitibar baserria

Txitibar taberna-jatetxea bezala ezaguna bada ere, izena iraganean plazan bertan zegoen baserriatik dator. Bertan jaio zen Regino, eta atzerrian ibili bazen ere, baserriari lotutako esentziak ez zituen ahaztu. Bekaiztegi baserrian bizitzen jarri zenean, besteak beste, sagardoa egiteko dolarea ipini zuela aitortu zion Aiurriri 2011n eskainitako elkarrizketan: "Garai batean ia Andoaingo baserri guztietan egiten zen sagardoa. Ni Txitibarren jaio nintzen, bi bizitza zituen baserriak eta bietan zeuden dolareak. Txikitatik ezagutu dut nik sagardoa egiten. Etxean ikusi izan dut nola egiten den". Bi urtez behin sagardoa egiteko ohitura zuen, etxekoentzat eta laguntzat.



Regino Otegi. ZUBELDIA-OTEGI

Familia ezaguna Andoainen

Aski ezaguna da Txitibar taberna-jatetxeko familia, Andoainen. Reginok berak urteak eman zituen tabernan, bezeroen artean solasean. Pertsona atsegina, iraganean eragile handia izan zen gizarte bizitzan.

Euskalduna futbol taldeko lehendakaria izan zen besteak beste. Klubak oharra argitaratu zuen, heriotza gertatu eta berehala: "Euskalduna osatzen dugun guztion partetik gure dolumina bidaltzen diogu 1971-72 denboraldian Klubeko lehendakaria izan zen Regino Otegi Iturralderen familia osoari". Sare sozialetan garai hartako argazki-bilduma eskegi dute. Besteak beste, Regino futbol zelai zaharrean belarra moztzen ageri da.

Zumeatarra elkarrekin ere doluminak agertu zizkion familiari, Regino elkarteko bazkide sortzailea izan zela gogoraraztearekin batera.



Regino Otegi. SD EUSKALDUNA



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Aurtengo Vueltako notak

10 Primoz Roglic: Gustuko izan edo ez, baina erregularrena eta onena izan da. Erlojupekoan irabazi ditu segundoak, baina mendate gogorretan bukatzen ziren etapetan ere bai, beraz txirrindulari konpletoena izan da esloveniarrak. Tourrean izan zuen taldea baino zazpiko ahulagoarekin, gainera. La Covatillan liderrak berak bakarrik atera behar izan zituen babak eltzetik. Tourrean bigarren, bere bigarren Vuelta, lau etapa, Liejako garaile... Urteko onena, ezbairik gabe.

9 Hugh Carthy: Denboraldiak eman dituen ezustekoen harira, Education First-eko ingelesarena beste bat. Caja Rural taldean egon zenean inork ez zuen pentsatuko Carthy itzuli handi bateko podiumean egon zitekeenik. Berak ere aitortu zuen atzo, Madrilen: Top 10 bat bai, akaso Top 5 bat ere bai, baina podiumean eta maillot gorria, hain gertu edukitzea, ez zuela espero inolaz ere. Anglirun irabazi zuen, gainera. Historian txoko bat gordeko dio horrek betirako Prestongo zainzuriari.

8 David Gaudu: Bi etapa garaipen, eta a ze bi etapa: La Farrapona eta La Covatilla. Sailkapen nagusian zortzigarren, gainera. Garaipen horiek taldekideen lan bikainari esker etorri dira, batez ere Bruno Almirail-en lanari esker. Frantziako harri bitxi berria ote? Bere esku itzuli handietan zentratzea, edo etapa garaipenetan, Vuelta honetan egin duen bezala. Thibaut Pinoten adibidea ezagutzen du, itzuli handietako nagusia lehenesteak ze ondorio dakartzan.

7 Richard Carapaz: Bai, baino ez. Esan nahi da, kontserbadoreegia izan ote den zalantza geratuko zaio betirako. Vuelta aztertzen duenean, eta Roglicek

gainsariei esker irabazi diola konturatzen denean, jarrera erasokorragoa izan behar zuela pentsatuko du. Jakina, etxetik dena erraz ikusten da. Tourretik etorri da, azken aste bikaina eginda, eta sasoi puntu ona hilabete luzez mantentzea ez da batere erraza. INEOS-ek du, orain arazoa: oilar gehitxo eskortan: Egan Bernal, Carapaz, Tao...

6 Ion Izagirre: Lasterketa irakurtzen maisuak, bera eta Gorka anaia. Etapa bat irabazi zuen Formigalen, bigarrena lortu zuen ia-ia La Covatillan. Hiru itzuli handietan etapa garaipenen bat lortu duen klub selektoko kide da, dagoeneko, Izagirre anaien artean gazteena. Harrapazank.

5 Dan Martin zaharrentzat. Etapa garaipen bat Lagunas de Neilan, eta 4. postua nagusian, nekez lortuko du postu hoberik hurrengo urteetan. Arnasa eman dio Israel taldeari, 2021ean Chris Froome-i lagundu beharko dio... edo Froome-ek berari...

4 Vueltaren ibilbidea: Askoren loreak jaso ditu, eta egia da etapa askotan borroka polita ikusi dela ihesaldiak harrapatzeko. Sortutakoak, maila handikoak. Nagusiko top 5a, baina, bi minuturen bueltan erabaki da, eta horrek frogatzen du gogortasun falta agerikoa dela. Jar ditzakezulako 17 mendate gogor, baina horiei kilometroak gehitu behar zaizkie. La Farrapona eta Anglirun, ustez Vueltako bi etapa gogorrenetan, oilarren arteko aldeak segundotakoak izan ziren. Stelvioko etapak izan behar du ispilu. Etapa hartan diferentziak ikaragarriak izan ziren, etapa 200 kilometrokoa zelako, eta benetako mendateekin. Bakarren batek esango du, Espainian ez dago halako mendaterik. Bai, badaude. Nahi bada, badaude, baina joera etapak

laburtzearen aldekoa da... Ibilbidea aintzat hartuta, Giroa hiruiretan onena, inolako zalantzarik gabe.

3 Talde gonbidatuak: Distira gutxi erakutsi dute Burgos BH-k eta Caja Rural-ek. Presentzia, bai, ihesaldietan, baina etapa garaipenetako jokotik urrun, beti. Atzetik bultzaka datoz Kern Pharma bezalako proiektuak, muturreko handiak egon litezke 2021eko gonbidapenen borrokan, arauak aldatzen ez badira.

2 INEOS-ek gidatutako protesta, La Farraponako etapa hasieran, aurreko etapen 3"-ko atzerapena eman ziotelako Carapazi Roglicetik. Ez hanka, ez buru.

1 Enric Mas: Txirrindulari ona da, baina nonbait, estimu handitan dauka bere burua. Hasieratik ikusi zen ez zela Vuelta irabazteko jokoan egongo, eta etapa menditsu batean denbora galtzen zuen aldiro barkamena eskatzen zuen publikoki, neurri egokirik eman ez zuelako, eta taldea bere mesedean barren hustu zelako. Neurri egokia akaso bosgarren sailkatzea dela ulertu behar luke... Gehitu horri Sanabriako etaparen ondoren bota zuena, 230 kilometroko etapak gehiegi direla, biharamonean berriro barkamena eskatzeko. Burua bere lekuan ez daukan ziklista...

0: Movistar taldea, Soler eta lana egin duten ziklistak izan ezik. Tristeak benetan taldearen jarrera eta hainbat erabaki. Lana, ikaragarri. Uzta, urria, Solerrek Lekunberrin lortu zuen etapa izan ezik. Handira jokatu nahi, eta ezin. Askotan, etapa berean, taktika aldatu eta denak despistatu, baita taldekideak ere. La Covatillan gertatu zena epaitzea, zuen esku, irakurle. Ebidentzia ziur bakarra: laugarren postua 53 segundora geratu zen Masentzat.

Nahikari itzuli da

Ez zen joan, lesionaturik baizik. Eta itzuli eta ondoen dakiena egiten jarraitu du. Hilabete luzez lehiatik kanpo egon ostean, lehen minutuetan gola sartu zuen. Erabat osatuta dagoen seinalea da. Taldearen dinakiman burubelarri sartuta, balio handiko jokalaria da Realarentzat. Aurten talde ona osatu dute. Denboraldi ona burutzeko osagirik ez zaie falta.



REAL SOCIEDAD

Lehian arituko da

Nora Mendizabal Guardian eta Legution ospatuko den pilota txapelketa berezian parte hartzeko deitu dute. Abenduaren 20ra bitarte bi multzotan banatutako zortzi bikotek hartuko dute parte. Maila handiko pilotariak elkartuko dira lehiaketa horretan. Andoaindarrak bere garapenean sakontzeko aukera bikaina du.



AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Urnietako
udala

"Datorrena austeritatean oinarrituko da"

NURA ARIZTIMUÑO GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTAKO KIDEA

2019an sortu zen gazte antolakundea da, zeinak azken hilabeteetan zer esan handia ematen ari den arlo politikoan eta sozialean. Elkarrizketa osoa irakurgai webgunean



Nura Ariztimuño GKSko kidea AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN.
Hasteko, zer da Gazte Koordinadora Sozialista?

Gazte Koordinadora Sozialista gazte problematikan klase ikuspegitik eragiten duen antolakundea da. Gazte problematikaz ari garenean, gazte langileok botere burgesarentzat betetzen ditugun funtzio multzoei egiten diegu erreferentzia. Hau da, geuretzat gazteria kontzeptuak ez ditu adin tarte ezberdinetako gatazkak ezaugarritzen, jendartearen zati bati burgesiak esleitu dizkion eginkizunak baizik. Hori horrela delarik, bi funtzio orokor bereizten ditugu, ekonomikoa eta despolitizatzaile.

Burgesiak gazteengan esku hartzeko elementu azpimarragarri bat ere badago; belaunaldi berriengan bizimodu konkretu bat ezartzean, etorkizuneko langileriaren nolakotasuna moldatzen dute.

Gauzak horrela, esandako guztiaren zentzu politikoa azpimarratzeko antolakundea da Gazte Koordinadora Sozialista. Klase kontzientziaren hedapenerako lanean diharduen antolakundea da, zeinak, gazteria politizatu eta antolakuntza komunistara batzen den.

Nola sortu zen antolakundea?

GKS 2019ko otsailean sortu zen. Euskal Herrian ematen ari zen

joera politiko sozialistak bultzatua izan zen sorrera, hala nola zenbait gaztetxe eta gazte asanbladetan sortzen ari ziren dinamikak, genero auzia klase ikuspegitik lantzeko sareak edota langile babes sareak izan ziren. Oro har, krisi kapitalistaren testuinguruan sortu ziren proposamen politikoek ahalbidetu zuten sorrera.

Krisiaren efektuetako bat izan da gazteontzako ezegonkortasuna eta bizi proiektiorako ezintasuna. Sortutako proletarizazioak jendarteko zenbait sektoretan klase-kontzientzia sortzen lagundu du, bereziki aurreko ziklo politikoko langileriaren eta aristokraziaren seme-alabetan.

Pandemiak sortutako ezohiko egoeraren ondorioz hartutako neurriek hautsak harrotu dituzte zenbait antolakundetan, zer diozu?

Momentu honetan ezarri dizkiguten neurriak salatzen kanpaina politikoa abiarazi dugu. Izan ere, jendartearen osasuna bermatzeko neurriak direla esaten badigute ere, datorren etorkizun makurraren adierazle dira; pobrezian eta askatasun

faltan oinarritzen den etorkizuna dugu aurrean. Une honetan, inoiz baino argiago ikusten da nortzuk agintzen duten: besteak beste, oligarkia finantzarioak, politikari profesionalak eta enpresari handiek.

Geure ustez, krisi kapitalistak ziklo produktibo berriaren sorrera dakar eta horrek proletarizazio prozesuan sakonketa. Amaitu da oparotasunean eta ongizatean oinarritutako bizimodu eredu, orain datorrena, pobrezia orokortuan eta austeritatean oinarrituko baita. Egogera horren aurrean proletalgoaren antolakuntza komunistaren beharra azpimarratu nahi dugu, hau da, eskubideen defentsarako eta askatasunaren unibertsalizazioarako alderdiaren beharra. Ezinbestekoa baita indar antolatua izatea, hori eduki ezean ez baita eskubide eta askatasunerako berme erreallik egongo.

Jardunaldiak

Eskualdeko GKSek jardunaldiak antolatu ditu, datorren azaroaren 19tik 21era. Andoainen eta Hernanin burutuko dira.

BERTSO ANTZERKIA **Urpekariak**

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN**
haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

KONTZERTUA ETA FILMA **Peru Galbete**

azaroak 14, **LARUNBATA**, 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

FILM ETA SOLASALDIA **Oskar Alegriaren Zumiriki**

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA **Anari, Malen&Maddi**

azaroak 20, **OSTIRALA**, 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

DANTZA **Korrontzi Dantzan + ORBELDI dantza taldearekin**

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio 18:00 eta 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

ANTZERKIA **Fadoak entzuten zituen gizona**

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN**

Sarrerak: Lizardi eta Noauan aldeaz aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan



NOAUA!KO KULTURALDIA 2020

**USURBIL
AZAROA**



Emanaldi gogoangarria

Bastero Kulturgunearen jarduera etenda izan da bi astez. Aurreko astebururako, ordea, neurri berriak iragarri zituen Andoaingo Udalak. Modu horretan Basteroko ateak berriro ireki zituzten. Lehen emanaldia Okiñena eta Gourdjiarena izan zen



Okiñena eta Gourdjia musikariak, joan zen ostiralean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Josu Okiñena piano-jole andoaindarrak eta Liana Gourdjia biolin-jole moskutarrarekin batera pieza klasikoez osatutako kontzertua eskaini zuen.

Orain arretik atzeratu behar izan zen kontzertua ostiralean gauzatu ahal izan zen azkenean, zuzeneko musikak normaltasunez eskaintzeko gaur egun dauzkan trabei aurre eginez.

Piano-jole eta biolin-joleak osatutako bikote kontsagratuarekin gozatzeaz gain, balio erantsia eduki zuen kontzertuak Andoaingo publikoarentzat. Izan ere, Andoainen jaio eta musika munduko lehen pausoak bertan eman zituen musikaria baita Josu Okiñena Unanue.

Euskal sortzaileak eta beren musika klasikoa Euskal Herrian eta munduan zabaltzeaz gain, horiek munduko beste konposatzaile famatuen parean jartzea da Okiñenaren goi-asmoa azken urtetan, eta horretara bideratu zuten Basteroko kontzertua. Horrela, bikoteak, Felix Davila, Maurice Ravel eta Jesus Guridi euskal sortzaileen piezak jo zituen batetik, Serguei Rajmaninov eta

Piotr Ilitx Txaikovski moskutarrak bestetik, eta azkenerrak utzi zuten, Pablo Sarasatek Nikolai Miaskovski Errusiako konposatzailearekin egin zuen konponketa bat. Euskal Herriko eta Errusiako kulturak maila handiko konposaketan eskutik batzea izan zen, hortaz, kontzertuaren muina.

Kontzertuaren azken aldera, Okiñenari eta Gourdjiari Beñat Olano biolin-jole gaztea batu zitzaizen, Basterora hurbildu ziren entzuleentzat musika emanaldi gogoangarria osatuz era horretan.

Kultur jarduera

Bastero Kulturgunean

Koronabirus garaian, egoera epidemiologikoak ahalbidetzen duen bitartean, emanaldiekin aurrera egingo dute. Ostegun honetan bertso eta flamenko ikuskizuna iragarrita dago Basteron, azaroaren 25eko ekitaldien baitan. Ostiralean kontzertua eskainiko dute Pettik eta Meleas taldeak. Eta igandean "Lai-ka" izeneko haur antzerki emanaldia iragarrita dago. 4 urtetik gorakoentzat aproposa.



ikusgaitzak

Ezin dira euren familian hazi, eta harrera-familia baten beharra dute. Eta ikusten ez duguna existitzen ez denez, aurpegi eta begiak jartzea erabaki dugu. Lagundu gaitzazu 60 harrera-familia aurkitzen.

gipuzkoa.eus
Erakutsi dezagun Gipuzkoaren aurpegiarik onena.

Udaltzaia
Pere Arburukoa
Dimitrios Pappas
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ORAIN
da FUTURO